




Gerrako euskal haur bat berpiztu da Georgian



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Tbilisi (Georgia), 1991. Martina Mintegui Bilbao hil zen, 65 urte zituela; senarrarekin, Guivi Guichaishvili idazlearekin batera, hantxe dago ehortzita.

11 urte zituela eraman zuten Martina Euskal Herriatik Sobietar Batasunera. 1937ko udaberrian, Durango eta Gernika bonbardatuta, Mola jeneralak erasoaldia abiatu zuen eta iparraldeko frontean egoerak nabarmen egin zuen okerrera: aurreko urtean sortutako Eusko Jaurlaritzak, gurasoen baimenarekin, 3 eta 14 urte bitarteko haurren ebakuazioa antolatu zuen hainbat estatutako adiskidetako gobernuekin. Frantziara 15.000 haur euskaldun inguru eraman zituzten, Erresuma Batua ia 4.000 eta Sobietar Batasunera, 1.500 inguru –Francisco Largo Caballero fundazioaren arabera, 1.495 izan ziren, baina Errusiako Gurutze Gorriak, aldiz, 1.765 haur izan zirela dio–.

Frantzia, Belgika edo Erresuma Batua eraman zituzten haur gehienak ez ziren erbestean luzaroan egon; Bigarren Mundu Gerra piztu zenean itzuli ziren etxera. Baina SESBek aktiboki parte hartu zuen 1936ko gerran, errepublikarren alde jardunez eta, ondorioz, “Errusiako haurrei” ez zieten itzultzeko aukerarik eman. Martinak bezala, askok bizi gutxia emango zuten erbestean. Eta gerra batetik ihesi joan ondoren, urte gutxira alemaniarren erasoaldia jasatea egokitu zitzaizkien; Euskal Herriatik joandako haur



Ezkerrean, “Errusiako haur” batzuk 1939an. Eskuinean, Martina Mintegui, SESB-era erbesteratutako haur horietako bat. Mintegui liburu batean jaso zituen bere bizipenak eta, berriki, liburu gazteleraz berrargitaratu da. Liburu horretan jasota dago argazki hau.



FAVORIT


zaharrenetako batzuk frontera ere eraman zituzten.

“Errusiako haurrak” esaten zaie, asko beste herrialde batzuetara eraman zituzten arren, esaterako, Ukrainara. Martina Mintegui, aldiz, Moskura eraman zuten, Pirogovskaya aterpetxera. Han eman zituen lau urte, beste gerra batek berriro ebakutzera behartu zituen arte. Martina Georgiara aldatu zuten, aterpetxeko gainerako haurrekin batera.

1966an izan zuen Martinak Euskal Herrira itzultzeko aukera. Bisitan etorri arren, Georgiara itzuli zen. Haurtzaroko

oroitzapenak, Euskal Herriko ohiturak, 1937ko ebakuazioa, 1941ekoa... idatziz bildu zituen Mintegui, eta, 1972an liburu batean argitaratu.

Otar Chichinadze mediku eta filántropo georgarrak aitortzen du negar malkotan irakurri zuela lehenengoz Minteguiaren testigantza. Eta 50 urte geroago liburu gaztelerara itzuli du. Favorit argitaletxeak kaleratu du *Mi País Vasco* (Nire Euskal Herria) izenburupean. Martinaren alaba Nanitaren hitzetan, “liburu berrargitaratzea gurasoak berpiztea izan da nolabait”. ●



Nor zen Gioconda?

Teoria zabalduenaren arabera, Da Vincik Lisa Gherardini margotu zuen koadro eza-gunean, Francesco del Giocondo Florentziar merkatariaren emaztea –hortik datoz *Gioconda* eta *Mona Lisa* izenburuak–. Carla Gori historialariak hipotesia zalantzan jarri du, ez Giocondari begira, atzean duen paisaiari begira baizik. Emakumeak bere ezkerrean duena Trebbia ibaiko Gobbo

zubia omen da, Bobbio herrian dagoena –Piacenza probintzian eta, beraz, Florentzian urrun–. Malaspina del Verme gazteluaren perspektibatik margotu omen zuen paisaia, eta horregatik ondorioztatu du Gorik, koadrokoa Bianca Giovanna Sforza izan behar dela, Bobbioko jaunaren alaba eta Da Vinciren lagun eta mezenas Galeazzo Sanseverinoren emaztea. ●